

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 255. zenbakia. 2017ko apirila



**Mallabian eta Ermuan,
Korrikarekin bat**



**Ignacio
Zuloaga
Institutua
Eibar**



Aurrematrikula

Maiatzaren 2tik 12ra

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA
ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Errenta 16
Renta
Maiatzaren 2tik ekainaren 30era

Zure errenta aitortpena
guk egin dezakegu
informa zaitetz!

Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 174344 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa Elkarte
Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIO
ETA MAKETAZIOA:**

Paul Bustindui eta
Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Valentin Mugarza.

LAGUNTZAILEAK:

Asier Ibaibarriaga,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
Ioritz Rasero eta
San Pelayo Ikastetxea.

ARGAZKIAK:

Amaia Arginzoniz,
Eneritz Arriaga,
Paul Bustindui,
Asier Calvo
Ángel Gil,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga,
Maralo
Valentin Mugarza, Orbea,
Ostots, Ioritz Rasero,
Ana Rodríguez,
San Pelayo Ikastetxea
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Amaia
Arrondo eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturririk ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Karlistak gara gu (Entzuteko: www.alboka.es)

Karlistak gara gu
Plaentxiako herrikuak.
Karlistak gara gu
Plaentxiako herrikuak.
Ertziño ta Fuerak ditugu gurekin,
danok alkar hartuta Jaime hirugarrekin.

Gora Errege Jaime III.
Jaime III. da gure Erregia!
Gora Errege Jaime III.
Jaime III. da gure Erregia!
Karlistak karlistak karlistak gara gu
ta izango ta izango ta izango gara betiko!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Asier Calvo (Erresuma Batua)	BOTEPRONTOAN 16 Angel Gil
ELKARRIZKETA5-7 Javi García, tatuatzailea	KIROLZALE 17 Galder Hernandez duatloian
MALLABIAN ZER?8-9 Anfiiteatroa estaltzeko lanak	IRITZIA 18 Ermuarron ondarea
ESKOLEN TXOKOA 10 San Pelayo Ikastetxeko berriak	ZORION-AGURRAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN 11 Vertigo rock jaialdia	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
KORRIKA 12-13 Mallabia eta Ermuko argazkiak	KALEKO INKESTA21 Nolakoa izango da tren geltoki berria?
ERMUAN ZER? 14-15 Versionarios taldea	MAIATZEKO AGENDA.....22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Asier Calvo

Aspaldi utzi zuen Asierrek Ermua. Aitortzen duenez, burutik jota egon da betidanik, eta kostatu zaio bere lekua topatzea. Egun, Galesko herri txiki batean du jatetxea, eta lasai-lasai bizi da emazte eta umetxoarekin.

- Zer dela-eta utzi zenuen Ermua?

19 urte nituenean etorri nintzen Erresuma Batura lehen aldiz. Armeria Eskolan ikasten ari nintzen, baina kilokolo nenbilen, eta senide bategen proposatu zidan hona etortzea. Aukera ona eta esperientzia polita izan zitekeela esan zidan. Ingelese... piperriker ere! Hasieran oso gogorra egin zitzaidan moldatzea, hizkuntza ikastea, familia eta lagunak urrun izatea... Gainera, hemen nengoenean, lagunik onena galdu nuen auto istripu batean. Ivan zuen izena, eta oso gogorra izan zen.

- Zenbat denbora eman zenuen bertan?

Hiru urte. Gero Ermura bueltatu nintzen, eta lanean hasi nintzen, gauzak okertzen hasi zirenera arte... Orduan erabaki nuen Erresuma Batura bueltatzea. Paraguaiko neska batekin ezkontuta nengoen jada, Dianarekin, eta biok joan ginen. Sukaldaritzan egiten nuen lana, eta hotel batean lan egiten hasi ginen biok.

- Nolakoa da bizitza Galesen?

Ez dauka hangoarekin zerikusirik: janaria, jendea, ohiturak, gosariak, bazkariak eta ordutegiak... hain desberdina da dena!! Hala ere, edozein gauzataraz ohitzeko gai gara gizakiok. Hizkuntza ikastea nahiko zaila izan zen, baina 10 urte eta gero, menderatuta dut.

- Zer botatzen duzu faltan?

Dena, bereziki familia eta lagunak. Jende asko galdu dut, eta batzuetan agurtzeko aukera izan dut; beste batzuetan, berriz, ez. Eta asko sufritzen da.

- Baina gustura zaude bertan?

Oso gustura. Galeseko herri txiki batean bizi gara egun, eta jatetxe espainiarra dugu. Ez dut hango janaria faltan botatzen, kar kar! Ez daukat denbora librerik, baina tartetxoren bat topatzen dugunean inguruko herriak ezagutzera joaten gara. Herrialdeko inguru polit batean bizi gara eta gauza asko dago ikusteko.



Jendea oso jatorra da, eta jada ondo ezagutzen gaituzte.

- Ermura bueltatzeko asmoa duzu?

Bi urteko semea dut, Ivan izenekoa, eta berak hemengo nazionalitatea du. Beraz, ez dut oso argi ikusten bueltatzea. Agian egunean batean...

- Bisitan etortzen zarete?

Bai, sarritan joaten gara, eta asko gustatzen zait. Gehien estimatzen dudana da lagunekin elkarte gastronomikora joatea. Beti ditut lagunak buruan, oso garrantzitsuak dira. Eta familia ere, jakina, batez ere nire amonaxoa. Askotan botatzen dut faltan eta ikusteko deseatzeko nago jada.

- Merezi du kanpora joatea?

Lana ez daukatena edo topatu ezin dutenak animatuko nituzke euren bizimodu ateratzera, esperientzia polita baita. Jendea faltan botatzen da, baina benetako lagunak badituzu, zure ondoan jarraituko du, berdin dio denbora aurrera badoa. Eta Ermua ere han jarraituko du. Gainera esan beharra daukat herri polita bihurtzen ari dela. Hemendik agur bat bidali nahi dut orokorrean, eta bereziki nire bihotzeko auzoaren Sallabenteko lagunei.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Argazkia: Maralo.

Javi Garcia, tatuatzailea:

**“Tximeleta-azala dutenei lagundu nahi nien,
baina nik bakarrik ezer gutxi egin nezakeen”**

Duela 6 urte hasi zen tatuatzen, eta 2013tik estudio propioa du Eibarren. Egunerokotasunean besteen azala apaintzeaz arduratzen bada ere, ermuar honek beste kezka batzuk ditu, azalarekin lotura dutenak: tximeleta-azala gaixotasuna dutenei laguntzea, hain zuzen ere. Bere ogibidea baliatuz, gai honekin zerikusia duten bi elkartarrentzako dirua lortzeko ekimena antolatu zuen martxoaren 25ean Eibarren: tatuaje maratoia. Goizetik gauera hamabi tatuatzaile aritu ziren jo eta su tatuajeak egiten; 100 lanetik gora egin zituzten, eta jasotako diru guztia Berrituak eta AFESD elkarteei eman zieten.

elkarrizketa

- Zer dela-eta erabaki zenuen horrelako ekimena martxan jartzea?

Betidanik kolaboratu dut Bilboko Berritxuak elkartearekin. Elkarte horren helburua da gaitz arraroen zabal-kundea egitea, batez ere tximeleta-azala deritzon gaixotasuna ezagutzera ematea. Gainera, bezero baten semeak diagnostikatu gabeko gaixotasuna du, eta Eibarko AFESD elkarteko kidea da (diagnostikatu gabeko gaixotasun arraroak dituztenei laguntzeko plataforma, alegia). Bai Berritxuak elkarteari bai AFESDeri laguntza eman nahi nien, baina nik bakarrik ezin nuen gauza handirik egin.

- Baina ez da eurekin kolaboratzen duzun lehen aldia, ezta?

Ez, familian badut gaixotasun hori duen senidetxoa, eta badakit gastu askori aurre egin behar dietela, inolako babes barik. Horregatik, estudioa zabaldu nuenetik tximeleta bat tatuatzeko dudanean, kobratutakoaren zati bat Berritxuak elkarteari ematen diot. Baina diru gutxi lortu nezakeen, eta zerbait handiagoa egitea bururatu zitzaidan.

- Nondik hasi zinen?

Ezagutzen ditudan tatuatzaileekin hitz egiten hasi nintzen, tatuaje maratoia egiteko asmoarekin, eta lortu nuen 8k baietza ematea.

Azkenean Euskal Herri osoko 12 tatuatzaile bildu ginen, eta asko kanpoan geratu ziren, leku falta genuelako. Untzaga Plazako jubilatua- ren egoitzan gela bat utzi ziguten eta oso ondo irten zen.

- Zenbat denbora eman zenuen horrelako ekitaldi berezia prestatzen?

Bizpahiru hilabete. Nire neska-lagunak eta elkarteetako neskek asko lagundu zidaten Udaleko gestioekin, tabernarekin... Ni, aldiz, tatuajeen alor guztiaz arduratu nintzen. Udalak ez zigun laguntza handirik eman, ezta trabarik ipini ere.

- Martxoaren 25ean espero bezala erantzun zuen jendeak?

Bai, goizeko 8:00etan geratu ginen dena montatzeko, eta ordurako jendea gure zain zegoen, ilaran. 10:00etan zabaldu eta 22:00ak arte egon ginen bertan, bazkaldu barik!

- Zer nolako tatuajeak egin zenituzten?

Ezin zen edozer tatuatu. Tatuatzaile bakoitzak 10 diseinu prestatu zituen, eta jendeak ehun eta piku horien artean bat aukeratu behar zuen. Guztiek zuten 50 euroko prezioa. Goizetik gauera bitartean 107 tatuaje egin genituen, eta horri gehitu behar diogu barran jasotako dirua, saldutako kamisetak...



- Tatuajeak gain, beraz, bestelako ekintzak ere prestatu zenituzten?

Bai, hainbat gauza egon ziren. Kamisetak egiten dituen lagun bat daukat, eta stand bat ipini zuen umeek euren kamiseta egin ahal izateko. Aurpegiak margotzeko tailerra, merkatu solidarioa, gaixotasun arraroen inguruan informazioa emateko stand... Harley Davidsonen ere kamiseta mardoa eman zizkigun saltzeko, eta soberan geratu zaizkigunak urtean zehar saltzen joango gara, Arata-tooren Facebookaren bitartez.

- Zenbat diru lortu zenuten azkenean?

Gastu gutxi batzuk kenduta, ia 6.000 euro eman diegu Berritxuak eta AFESD elkar-teei.

- Balorazio positiboa egin duzue?

Bai, oso positiboa. Hasieran beldur nintzen, alde ba-

retetik utzi ziguten lekuagatik. Horrelako gauza bat jubilatuen egoitza batean... igual ez zen oso erakargarria. Baina ez: gu pozik, eta egoitzakoak pozarren. Datorren urterako eraikin osoa utziko digutela agindu digute. Izan ere, errepikatzen asmoa dugu, eta dagoeneko jaso ditugu makina bat tatuatzailearen eskaerak.

- Hobetzeko atalik baduzue?

Bai, badaude hainbat gauza datorren urterako hobetu nahi ditugunak. Alde batetik, tatuajeen neurria zehaztu beharko dugu. Bestetik, sarrerak eta irteerak ondo antolatu behar ditugu. Nik imajinatzen nuen jende asko hurbilduko zela, baina ez horrenbeste. Eta oso eguraldi txarra egin zuen, ona eginez gero...!

- Bestalde, sei urte daromatzazu tatuatzen. Zerbait aldatu da tatuajeen munduan epe honetan?

“Euskal Herriko 12 tatuatzaile bildu ginen eta jendearen erantzuna bikaina izan zen”






ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Bai, gauza asko: tintak, tatuatzeko moduak... Gainera, katalogoak ia desagertu egin dira eta bakoitzak bere gustuko irudiak dakartzu mugikorrean. Gazteek, batez ere, lehen tatuajea oso handia egiten dute, oso koloretsua... Indartsu datoz!

- Haiek jarraipena eman-gio diote tatuajeen modari, edo azken urteetan beherakada egon dela sumatu duzu?

Ez, nik ez dut inolako beherakadarik igarri. Denda zabaldu aurretik banituen nire bezeroak, eta gaur egun bezero askok gurekin errepikatzen dute. Seinale ona da. Lanez gainezka nago, berdin dio urteko zein sasoa den.

- Zein da gehien gustatzen zaizun estiloa?

Errealismoa eta *new schoola*.

- Nahiago duzu diseinu propioak egitea, edo kopiaztzen zaude erosoago?

Nahiago dut nire diseinuak egitea. Jendeak ekartzen dituen tatuajei ere nire ukitua ematen diet; ez zait kopiaztzea gustatzen besteen lanaz aprobetxatzea delako.

- Ezetz esan diozu inori?

Bai, ez ditut ez tribalak, ez maoriak tatuatzeko, ez zaizkit gustatzen. Esan dizut lana badaukadala, eta horri esker tatuajeak aukeratu ditzaket. Ez badut eroso lan egin behar, nahiago dut bezeroa beste estudio batera joatea.

Dorleta Vidal



Ana Rodriguez, tatuatzailea:

16 urte daramatza tatuajeak egiten, eta gaur egun Ermuko Arcos Tattoo estudioan dihardu. Pasa den martxoaren 25ean Eibarren egon zen beste tatuatzaileekin batera, gaixotasun arraroak tratatzen dituzten bi erakundeetara laguntzeko antolatutako maratoi batean.

- Horrelako ekitaldi batean parte hartzen duzun aurreneko aldia da?

Bai. Egitasmoaren ideia ahalik eta tatuaje gehien egitea zen, ahalik eta diru gehien biltzeko. Oso emaitza positiboa lortu genuen, jende asko bildu baitzen bertan.

- Errepikatzeko esperientzia da?

Bai, asko tatuatzeko aukera gabe gelditu zirelako, jende ugari baitzegoen. Gainera lehenengo aldiz tatuajea egiten zuen lagun ugari bildu genuen.

- Bestalde, tatuaje konbentzioetan ere ibili izan zara atzerrian.

Bai, diseinuak partekatze-ko probetxugarriak dira tatuatzaileen arteko konbentzio hauek. Orain dela gutxi Portugalen egon naiz.

- Tatuajeen munduak eraldaketa sakona jaso du jendearen ikuskeraren alde-tik?

Hasi nintzenetik hona aldatuta asko egon dira. Orain tatuajea arte gisa ikusten hasi dira. Bazen garaia.



- Uda hurbiltzen denean jende gehiago animatzen da?

Tatuajeen kultura gero eta hedatuago dago, eta sasoi honetan jendeak badaki tatuaje bat egitea ez dela oso komenigarria, eguzki izpiak saihestea beharrezkoa baita. Urte osoan zehar eskatzen dizkigute tatuajeak, ez sasoi konkretu batean.

- Eta zeintzuk dira gehien eskatzen dizkizuten diseinuak?

Orain oso modan jarri da *letteringa*, esaldien tatuajeak. Baina denetarik eskatzen digute.

Paul Bustindui

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

Hamburguesería TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com



MUGA



KIKLOAK

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ANFITEATROA ESTALTZEKO LANAK EKAINEAN HASIKO DIRA

Herriko anfiteatroa estali eta birmoldatuz, aisialdirako gune bat sortzeko asmoa aurrera doa. Martxoko udalbatzarrean, baiezkoa eman zioten proiektuan deskribatutako obren kontratazio espedientea onartzeko proposamenari. EAJ eta EH Bildu alderdiek aho batez hartu zuten erabakia.

Anfiteatroaren proiektua gauzatzeko baldintza-orria prest dago, eta orain lanak esleitzeko prozedura hasiko dute, lehiaketa publiko bidez. Udalaren asmoa anfiteatroa birmoldatzeko lanak "ekainean" hastea dela adierazi du Aitor Agirre Mallabiko alkateak. Hiru hileko egikaritze epea izango du eta dena bere bidetik badoa, negua helitzen denerako amaituta egongo da. Proiektua gauzatzeko 284.811 euroko inbertsioa (BEZa barne) eskatuko dio udalari.

Umeentzako anfiteatro berriak jolasak zein adinekoentzako guneak izango ditu. "Belaunaldi anitzetako herritarren bilgune izatea gura dugu", dio Agirrek. Espazio berri horren egitura erabakitzeko orduan, herritarrei galdetu zieten. Iazko ekainean bi ereduren artean hautatzeko aukera eskaini, eta 75 herritarrek eman zuten botoa. Gehienek egurrezko estaldura aukeratu zuten.



ZUNTZ OPTIKOA JASOTZEKO TELEFONOA MARTXAN DA

Zuntz optikoaren ezartzea azken fasean da Mallabiko herrigunean, eta dagoeneko konektatu ahal izateko aukera abian dago. Zuntz eta operadoreei buruzko informazioa jasotzeko telefono bat ezarri da, 943 17 91 53.

BRIKOLAJE TAILERRA EGINGO DA MALLABIAN

Brikolajeari buruz bere jakintza areagotu gura duenarentzako tailer bat antolatu du Mallabiko Udalak. Apirilaren 25ean eta maiatzaren 2an izango da, 19:00etatik 21:00etara, Kontzejuzarren. Izen-ematea Kultur Etxean egin daiteke, edo 943 17 66 91 telefonora deituta. Aurretik iturgintza eta elektrizitatearen gaineko ikastaroak ere antolatu izan dituzte.



MALLABIKO ELKARTEAK KORRIKA EGUNA ALAITU ZUEN

Hainbat elkartek hartu zuten parte pasa den hilaren 7an 20. Korrikan. Giroa alaitzeko, 17:00etatik aurrera Gazte Alai dantza taldeak jo zuen. 17:30etan Guraso Elkarteak antolatutako txolokatada egin zen. 18:00etan, Satxibu Begirale Taldeak zirko tailerra prestatu zuen herriko plazan hainbat ekintzekin. Bertan puxikekin eta arrozarekin malabareak egin, slacklinean gomarekin jolasean ibili eta paratxutarekin jolas desberdinak egin ziren. 19:00etan Mallabiko Udalak antolatuta Disko Jartzaile bat egon zen, eta 20:00etan tabernetan pintxo potea prestatu zuten, Korrika herriko kaleetatik pasa baino lehenago.



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA



Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

AFIZIONATU MAILAKO PILOTARI ONENAK BATU DITU BIHARKO IZARRAK TXAPELKETAK

Biharko Izarrak pilota txapelketa prestigiotsuaren 14. aldia hasia da dagoeneko. Urtero legez, afizionatu mailan dauden pilotari onenetakoak ikusi ahalko dira Mallabiko pilotalekuan ostegun gaba eta zapatu arratsaldeetan.

Ez dago dudarik finalerdietara sailkatzea garesti egongo dena. Otsailaren 23an hasi ziren eta maiatzaren 25era arteko 18 jardunaldietan afizionatuetan dauden 24 promesarik handienak igaroko dira Mallabiatik. Labaka, Prieto, Zubizarreta, García, Anso, Alberdi, Olaizola, Garmendia, Otaduy, Irurita, Urizar eta Sarasa dira A multzoan. Prado, Larrañaga, Etxebarria, Salaberria, Etxebarria, Espinal, Etxebarria, Sanchez, Aizpuru, Mariezkurrena, Arandia eta Zezeaga osterar B multzoan. Nagusienak 22 urte ditu. Gazteenak, berriz, 17 urte.

Profesionaletan dauden bi enpresa nagusietako begiraleek gertutik jarraituko dute gazteen lana. Iaz Biharko Izarraren aritutako gazte askok profesionaletan debutatu zuten ondoren: Julen Martija, Ander Errandonea, Jon Erasun, Unai Laso, Jon Ander Peña eta, txapelketa irabazi zuten Iñigo Martinez eta Andoni Ugalde, besteak beste.



ORBEAK FABRIKA BERRIZTATUKO DU

Mallabiako Orbea bizikleta lantegiak modernizazio prozesu bat jasango du bere instalakuntza guztietan. Lanak 2018ko udan bukatzea espero dute. Enpresak kalitate handiagoa eta pertsonalizazio kutsua eman nahi die instalakuntzei, langileei lana erreztu nahian eta bezeroei produktu hobe bat eskaintzeko.



Orbeatik adierazi dute eginbeharreko hobekuntzak direla, lan sail guztietako prozesuak "kalitate eta kalitate" handiagoa izango dutela berrikuntzekin. Helburua bezeroari lehen mailako produktu goren bat eskaintzea izango da.

Miguel Ángel Estandiák, Orbeako zuzendari industrialia eta proiektu honen arduraduna denak, egingo diren hobekuntzak azaldu ditu: "Hasteko, momentuan dagoen pintura saila hobetu nahi da, obrak egongo diren bitartean produkzioa aldatu ez dadin". Pintura saila estali nahi dutela adierazi du Estandiák, honela isolaturik gera dadin, eta egoera paregabe batean pintatzeko aukera izateko. Orbeak argi dauka jarraitu beharreko bidea: "Produktu pertsonalizatuak eskaintzen dituen bizikleta enpresa liderra izan nahi dugu".

Paul Bustindui



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

<ul style="list-style-type: none"> - Toldoak - Ostalaritzarako muntaiak - Pertsianak - Instalakuntzak eta konponketak - Motorizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Manparak - Segurtasun pertsianak - Pertsiana dekoratiboak - Estreak - Eltxo-sareak
---	--

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



**ZUZENBIDE
KONTUAK**

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



SEHIGA

PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



CAPRI

PIZZERIA
943 03 33 15

San Pelayo Ikastetxeko ikasleak bidaian

Urtero bezala, San Pelayo Ikastetxeko ikasleek "Escuela Activa" ekimenaz gozatzeko aukera dute aurten ere. Ekimen honek kulturaz beste modu batean gozatu eta ikasteko aukera ematen die ikasleei, eta oraingoan, martxoaren 13tik eta 17ra, DBHko hirugarren mailako ikasleak Madrilera joan dira.

Autobusa Ermuan hartuta, goizean goiz, Madrilerantz abiatu ziren. Segovian geldialdia egin zuten, non akueduktua, katedrala eta Alkazarra ikusi zituzten, beste hainbat gauzen artean. Behin Madrilera helduta, hiriburuaren erdigunea ezagutu eta museo ezberdinak bisitatu zituzten. Bertan Goya, Velázquez, Murillo, Zurbaran eta Picasso bezalako artisten obrak aztertu ahal izan zituzten aurrez-aurre. Horrez gain, Kongresua eta Escorial monastegia ezagutu ahal izan zituzten, barren-barrenetik.

Lan gogorra egiteaz gain, aisialdi eta abenturarako denbora izan zuten baita ere San Pelayoko gazteek: aireportuan *ginkana* bat egin, Madrilgo Gran Via kale famatuan antzerki bat ikusi, Warner parkea bisitatu...

Bidaia bere fruituak eman ditu, atsegina izan da eta "Escuela Activa" ekimenak aurrera jarraitzea desio dute ikasleek.



Inauterien amaiera ospatzeko modu ezin hobea

Pasa den hilabetean, San Pelayo Ikastetxean inauteri festa ospatu zuten. Bertan, jaialdia egin zen, eta 3 urtetik 12 urte bitarteko ume guztiak morroztu ziren. Lehen Hezkuntzako kurtso guztiak desfile bat egin zuten, zeinetara familia ugari gerturatu ziren. Mozorro lehiaketa, abestiak, dantzak, merendola... eta abarrez gozatu ahal izan zuten. Hau bai hau modua inauteriei amaiera emateko!

Zientzia eta teknologia ikasteko era alternatiboa

Otsailaren erdialdean, San Pelayo Ikastetxean Zientzia eta Teknologia jardunaldiak izan ziren, gaien interesatuta egon litekeen ikusle eta entzule orontzat. Bi egunetan zehar, DBH-ko ikasleek gaiarekin zuzenean lotuta zeuden tailer ezberdinak aurrera atera zituzten, familia, lehen hezkuntza eta haur hezkuntzako ikasleei zuzenduta.

Ekintza ezberdinak burutu bitartean, *planetarium* txiki bat ezagutzeko aukera izan zuten guztiak eta bertan izarrei buruzko kontu ezberdinak ikasi ahal izan zituzten.

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Savrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Ervailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

mari asun 

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

T XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) ENKARGYAK 943 030 299

ileapaindegia

Silvia peluquería

Asteartetik ostiralera 9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

 943 170474  688819336

Euskal Liburu eta Disko Azokak 25 urte beteko ditu aurten

Maiatzaren 18tik 21era burutuko da XXV. Euskal Liburu eta Disko Azoka. Ohi bezala, ostegunean zabalduko da azoka plazan (hilak 18) eta domekara arte egongo da zabalik (hilak 21): 11:00-14:00 eta 16:30-20:30 astegunetan eta 11:30-14:00 eta 17:00-21:00 larunbat eta igandean. Liburu eta diskoen postuez gain, adin guztietako lagunei egokitutako zenbait ekintza antolatu ditu Ermuko Udalak. Larunbatean umeentzako taile-rrak egongo dira plazan 12:00etan eta igandean 18:30ean Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria eta Mattin marrazkilariaren txanda izango da, leku berean. Maiatzaren 23an, asteartean, 19:15ean, gainera, "Kokeinekin solasean" topaketa egingo da Lobiano Kulturgunean.

XI. Vértigo Rock musika jaialdia maiatzaren 20an egingo da Betiondon



Narco, Kop, Rat-Zinger, Kokein, The Guilty Brigade, Fear Crowd, Stai Zitto, The Vartools eta Black Redding taldeek hartuko dute parte aurtengo Vértigo Rock jaialdian. Musika zaleek maiatzaren 20an dute hitzordua, 16:30etatik aurrera, kokapen berrian: Betiondon. Antolatzaileek ez dute zerikusirik izan leku aldaketa honekin (horrela jakinarazi dute sare sozialetan), baina aurreko urteetako arrakasta bera izateko itxaropena dute. Hamaika urte hauetan bi leku ezberdinetan burutu da Vértigo Rock (2007tik 2014ra plazan; 2015 eta 2016an, San Pelaio parkean).

ERREFUXIATUEN ALDEKO MARTXA EGINGO DA APIRILAREN 29AN

Komite Internazionalistak jakinarazi duenez, Ermua eta Gernika bitarteko martxa burutuko da apirilaren 29an, larunbata. 10:00etan Gipuzkoatik datozen partaideei harrera egingo zaie San Lorenzo Eskolan, eta 10:30ean ekitaldia egingo da plazan. 11:30ean autobusa hartu eta Munitibarreraino joango dira, eta handik oinez Gernikaraino. Bertan ekintza solidarioak, kontzertuak eta zine emanaldiak eskainiko dira besteak beste, eta bukatutakoan, 21:00etan, Ermura autobusez bueltatuko dira parte hartzaileak. Ekitaldiaren helburua da errefuxiatuei erakustea Euskal Herrian ongi etorriak izango direla. Informazio gehiago eskatzeko edo izena emateko, 620444115 telefonora deitu beharko da, edo Idoiaren dendara jo.

IZEN EMATE EPEA ZABALIK
Maiatzaren 2tik 12ra,
0 eta 2 urte bitarteko umeentzat
Irailan, urrian eta azaroan hasteko



**Ekainean
ATE IREKIAK
berriro ere**



Hurrengo matrikulak:

URRIAN: abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.

URTARRILEAN: martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko.

ERMUKO HAURRESKOLA
Iparragirre, 15 (Antzoki parean)
943 17 64 31
ermua.ermua@haurreskolak.eus

HAURRESKOLAK

www.haurreskolak.net

MALLABITIK

tipi tapa, tipi tapa...



MALLABIKO LEKUKOAK:

Futbito taldie, Nahikari emakume taldie, Gazte Alai dantza taldie, Jasokunde eta Anai Artea abesbatzak, Guraso Elkartea, Berbalagun, Biharko Izarrak, Askalde Kooperatiba, Mallabiko Udala, Herriko taberna, Mendibil abesbatza, Pelota taldie eta Goimek.



Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidua 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonia 943 17 04 14


Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

ETA ERMUTIK



Ermuko Andrek txokolate goxo-goxoa prestatzen digute Korrikan. Eskerrik asko!



ERMUKO LEKUKOAK:

Artarrai, Euskal Birusa, Bertso Eskola, Tenneco Innovacion langileak, Ermuko Gazteak, Emakumeen Asanblada-Zipristintzen, EHBildu-Senideak, Merkatari Elkartea, Tenneco Automotibe langileak, Errealzaleak, Ikastolako AMPA, Eskolabarri, Alboka Musika Eskola, Ermuko Udala, Txindurri, Antxixiketana-Ermuan Bagara, Gipuzkoako Urak, EAJ, Infreñu, Elkarte Gastronomikoak, Errotabarri eta Herri Muga.

esonline[®]



846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esonline.es



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina

Goienkale z/g 2. solairua

ERMUA · 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

Versionarios taldea:

“Itxura txarra hartzen diguten arren, jendea txundituta geratzen da”

Lurpe tabernan entzun ziren Versionarios taldearen lehen akordeak, duela 4 urte inguru. Musika gustuko zuen lagun talde bat bertan elkartu eta musika jotzen hasi zen: gauetan, era akustikoan eta inolako konpromiso barik. Proiektua indarra hartzen joan zen, eta egun, 20 kontzertu inguru eta gero, hasierako ilusioz eta indarrez beteta jarraitzen dute.

- Zein musika mota jotzen duzue?

Pop-rocka gaztelaniaz, 80 eta 90. hamarkadetakoa abesti ezagunak. *El límite* (La Frontera), *Cruz de navajas* (Mecano), *La chica de ayer* (Nacha Pop), *Las chicas son guerreras* (Coz) eta *A tu lado* (Los Secretos), besteak beste. Aktualagoak ere badiugu, MClan edo Amaralen bat, esaterako. Errepertorioa txikitzen joan gara, momentu batean 60 abesti genituelako. Gaur egun 25 bat ditugu, eta noizbehinka aldatetako egiten ditugu. Izan ere, kontzertu gehienak Ermuan egiten ditugu, eta jendeak gauza berriak eskatzen dizkigu.

- Nola egiten duzue aukeraketa?

Berez irteten zaigu. Baten batek abesti bat proposatu,

eta jotzeari ekiten diogu. Batzuetan, nahiz eta tematu, ez dago kanta bat jotzeko modurik eta baztertu egin behar dugu; beste batzuetan, aldiz, gogo handirik gabe hasi, eta berehala hartzen diogu puntua.

- Hasierako musikari guztiek jarraitzen duzue, edo gorabeherak egon dira?

Gorabeherak izan ditugu. Hasieran 3 gitarra akustiko eta teklatura jotzen genuenok bakarrik geunden; gero baxua, bateria, eta neska baten ahotsa sartu genuen. Orain 7 gara, baina 8 izatera heldu gara.

- Gogoan duzue lehen kontzertua?

Bai, 2013ko Gaur Zabalik ekimenenean izan zen. Hortik aurrera hainbat lekutan jo dugu: Lurpe, Torrekoa eta Karikato tabernetan, Valdes-



pina parkean Santixauetan, Galiziako Letren Egunean, Sallabenteko jaietan, Eibarren, Gasteizen, Segovian... Euskal Herrian eta Segovian ezagutzen gaituzte, kar-kar! **- Bai, bitxia da...**

Gure bateria ohiak ezagun bat zuen Segovian, eta honek kontzertu bat antolatu zuen zaldi-eskola bat inauguratzeko. Gonbidatu gintuzten, eta primeran pasatu genuen. Han beste tipo bat ezagutu genuen, eta bere herriko jaietan jotzeko proposamena egin zigun. Bi urtez joan gara jada. Bai bertan eta bai Sallabenten, sumatu dugu hasieran ez zirela gutaz asko fida-

zuen. Itxura txarra hartuko zigituen-edo, baina gero lilurata geratzen dira eta errepikatzeke gonbitea egiten digute.

- Etorkizunari zer eskatzen diozue?

40 Principalesen jotzea, Miamitik bira egitea... kar-kar! Ez, gure asmoa ondo pasatzea da, eta jendeak gurekin ondo pasatzea. Askotan esaten digute nabaritzen dela eszenatokian ondo pasatzen dugula, eta hori kontagiatu egiten da. Baina egia da gehiago mugitu behar garela kontzertuak lotzeko.

Dorleta Vidal

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI

SPARA
rehabilitación + sostenibilidad

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zeharkalea, 36. 3º - 48260 Ermua - Bizkaia

Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Hildako herritarrak

Ermuko Santiago Parrokiako heriotza-liburuetan, 1936ko gudaren ondorioz hildako hainbat ermuarren berri ematen da, euren jaioterrian idatziz jasotzeko Gotzainaren aginduari jarraituz eginikoa. Honetan Erregistro Zibileko informazioa eskasagoa da.

Abade desberdinen eskutik jasotzen dira agiriak eta hildako batzuen kasuan datu soilak datozen bezala, beste batzuenak zehaztasun ugarirekin dauzkagu; hil egiten dira batzuk, erahilak dira beste batzuk... Heriotzak herio, hauxe zendutakoen zerrenda:

Victor Zabala Izagirre, 36 urte, Salvador eta Manuelaren semea, 1937ko apirilaren 22an Eibarko errefugio batean hil zen, "airezko bonbardaketa batek egin-dako zaurien ondorioz".

Apirilaren 25ean, "gerrako hegazkin batek jaurti zuen lehegailu baten ondorioz" Roman Olañeta Onandia hil zen, Francisco eta Modestaren semea, eta eraso 17:00etan izan zen.

22 urteko Nicolas Careaga Unamuno, Nicolas eta Juliaren seme, urte bereko irailaren 11n zendu zen Valdecillako Osasun Etxean, Santanderko frontean pairatutako zauriengatik.

1937 urtea amaitu aurretik, 6 gizona zuten datuak jasotzen dira:

Jesus Gallastegui Telleria, 28 urte, Jose eta Mer-

cedesen semea, Sabino Arana Goiri Bataloikide, Bizkaiko frontean zendua, Sabinaingo kokapenean.

Atanasio Yarza Sagarraga, 22 urte, Vicente eta Franciscarena, Kirikiño Bataloikide, Bizkaiko frontean zendua, Kantauri itsasertzean.

23 urteko Francisco Suinaga Orbe, Santos eta Mariaren seme, Nazionalen Ejertzitoetako kide, uztailaren 15ean hil zen Gurutzetako Ospitalean, sukar tifoideen ondorioz.

Felix Solozabal Echevarria, 19 urteko Bernardino eta Melaniaren semea, 1936ko irailaren 25ean "gorriek eraila" izan zen Cabo Quilates itsasontzian; Tomas Lasarte Lasarte, Agapito eta Mariaren semea, eta Ildefonso Landa Acha, Severiano eta Anacletarena, kartzela-itsasontzi berean erail zituzten urriaren 2an.

1938ko martxoaren 24an, 27 urteko Adoldo eta Mariaren seme Claudio Gorrichategui Gorroño, basoan topatutako esku-lehegailu batek ezustean errebentatu eta, ondorioz, hil egin zen.



36ko gudan jasotako oroigarria, guztien izenak jasotzen ez zituen arren, Erdiko kalean, Santiago iturri ondoan egon zen 80ko hamarkadara arte.

23 urteko Santos eta Franciscaren seme Francisco Aguirre Telleriaren heriotza, frontean jasandako zaurien ondorioz, 1938ko maiatzaren 26an jasotzen da.

Urte bereko urriaren 28an idazten da Ignacio Narbaiza Celaya, Teodoro eta Josefaren 21 urteko semearena, Catalunyaiko frontean hila suertatu zena, ejertzito nazionalen Jaungoikoa eta Aberriaren alde "gloriosamente", lorioski borrokatzen zegoela.

Madriko frontean lorioski borrokatzen ere adin

bereko Vicente Beitia Ciar solo hil zen, eta 1939ko urtarrilaren 22an jasotzen da idatziz.

Azkenik, 1936ko irailaren 4an "horda gorriek eraildako" 32 urteko Ignacio Olañeta Villaren heriotzaren berri 1939ko maiatzaren 28an jasotzen da, ordura arte bere gorpua Eibar eta Elgeta arteko leku bakarti batean egon zen, eta herriko kanposantuan lurperatu zuten.

Gerra krudel baten ondorioz hilak, bake-baketan daudela guzti-guztiak!

Estibalitz González

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

Á N G E L G I L**- Gazte garaiko zer oroitzen duzu?**

Oso garai politikak izan ziren. Orduko Ermuak eta gaur egunekoak ez daukate inongo antzik. Zenbat aldatu diren inguruak!

- Eskulanetarako dohainak umetatik zenituen?

Gurasoek behintzat hala diote. Beti nengoela zer edo zer marrazten edo paperekin figuratxoak egiten...

- Txikitan zer izan nahi zen?

Armeria Eskolan aurrena eskopeten grabatua ikasten hasi nintzen, baina laster ikusi nuen nirea beste kontu bat zela.

- Berrero jaioko bazina...

Errepublikatuko nuke bizi izan dudana guztia.

- Artista jaiotzatik da artista?


Dohain bereziak izateak beti laguntzen du, gauzak errazago ikasten dira eta.

- Marrazketa, buztina denetarik egin duzu....

Niri eskultura mundua gustatzen zait gehien. Bolumena batik bat.

- Zorrotza zara?

Bai, batez ere nire buruarekin. Esaterako, gauzak nahi bezala geratu arte ez naiz lasai geratzen.

- Lanetik aparte zer duzu gustuko?

Burgosko Mecerreyesen jaioa duela 55 urte. 3 neba-arreben artean bigarrena. Urtebete eskas zeukala Ermura etorri, eta geroztik bertan bizi da. Udaletxeko langilea izateaz aparte, eskulana izan da bere zaletasun eta pasio. Ermuko Eskulan Eskolako sortzailea eta makina bat urtez bertako irakasle izana da. Bere lanak www.angelgilceramicaybronce.com webgunean daude ikusgai.

Egia esan ez dut tarte asko izaten beste gauzetarako. Beti daukat zerbait egiteko. Sarritan orduak faltan izaten ditut.

- Non bilatzen duzu inspirazioa?

Beti izan dut jakin-min handia: gauza berriak ikasteko, probatzeko... Eta horrek eramaten nau.

- Ermutik kanpo ere makina bat enkargu egin izan dituzu...

Burgosen eskultura dezent daukat. Horrez gain, Espainiako beste zenbait herritan ere baditut beste hainbat.

- Zerk lasaitzen zaitu?

Musikak, irratiak, sormen lanak.

- Emaztea non ezagutu zenuen?

Zornotzan, jai batzuen aitakian.

- Bizitzako une bereziren bat?

Alabak jaio ziren egunak.

- Lema bat...

Bizitzako gauza txikiekin disfrutatzen ikasi.

- Familia...

Lagunartea gustuko dut baina ni oso etxekoa izan naiz beti. Emaztea, alabak, ingurukoak zaintzea.

- Bidaia bat nora?

Hegoamerika ezagutzeko gustatuko litzaidake.

- Zure dohain bat?

Pertsona ona, hitzekoak naizela uste dut, eta naizen modukoa agertzen naizela jendaurrean.

- Defekturen bat?

Urduria naiz, lotsatia eta sarritan despistatu xamarra ere bai. Kalean oinez noala, ikasle ohi askoren aurpegiak ez ditut ezagutzen.

- Bete gabeko ametsik?

Sasoi batean oso zailak ziren erronkak gauzatzea, baina pixkana ari naiz lortzen. Zaldun bat bere zaldiarekin egin berri dut taina naturalean, eta hori erronka bat izan da beti niretzat.

Asier Ibaibarriaga

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es
egolek

electricitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Galder Hernandez, triatloilaria:

“Triatloira salto egin eta asko disfrutatzen nabil”

Gurasoengandik jaso du kirolarekiko afizioa. Futbola utzi eta triatloian murgildu zen abentura berrien bila. Asteaz zehar gogor entrenatzen du, eta ikasketak alde batera utzi gabe, etorkizunean kirolarekin erlazionatutako INEF burutu nahi du.

- Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzeko?

Txikitatik triatloia gustuko nuen eta nire gurasoen kuadrilako batek praktikatzeko zuenez, futboletik triatloira jauzi egitea erabaki nuen. Ordutik ezin hobeto ibili naiz, eta futbola uzten oso ondo egin nuela uste dut, triatloiarekin gehiago disfrutatzen dudalako gaur egun.

- Familiaren babesa behar duen kirola da triatloia?

Bai, hasieratik lagundu naute, baina kirol hau nahiko garestia dela askotan errepikatzen didate: materiala, inskripzioak, bidaiak...

- Hainbat probetan parte hartu izan duzu urteotan, ezta?

Euskal Herrian hainbat triatloi egiteko asmoa dut, hala nola Getaria, Lekeitio, Deba, Gortiz... eta Espainian Madrileko “Triatlon Bola del Mundo” egiteko gogoz nago. Erronka polita da edozein lasterkarirentzat.

- Zenbateko garrantzia du arlo fisikoak?

Argi dago kirol hau praktikatuko ahal izateko entrenatu egin behar dela, baina aldi berean, gogorra izan behar zara, oso kirol zorrotza delako eta askotan edozein probatan lasterketa bertan



behera uzteko gogoa izaten delako.

Triatloi klubeko kidea ere banaiz.

- Nolakoak dira zure entrenamenduak, bakarka edo taldekakoak?

Nirekin batera nire adinekoa den Iñigo Piñonekin entrenatzen dut ahal dudan guztietan, biok entrenatzaila berarekin gabiltzalako, baina gero Ermuko Ostots

- Duetloia edo triatloia nahiago?

Dudarik gabe, triatloia nahiago ditut, nahiz eta biak praktikatzeko ditudan. Biak proba exigenteak izan arren, duetloiak triatloiak baino gogorragoak dira nire ustez.

Amaitu Arginzoniz

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

san pelayo
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Ermuarron ondarea

Noizean behin iritzia emateko aukera izaten dut, eta niretzako ohore bat da nire pentsaerak eta usteak argitalpen batean irakurtzeko posibilitatea izatea. Gainera, nire profesio munduaren inguruko ikuspuntuak zabaltzen laguntzen dit. Baina oraingoan beste gai bat jorrazteko baimena eskatuko dizuet.

Udaleko webgunean agertzen denez, gure herriak ez dauka sorrera data zehatz eta jakin bat; Wikipediak, beste aldetik, 1140 eta 1383 urteen bitartean sortu zutela dio. Horrek esan nahi du, herriak, ia mila urte dituela. Imajina zenbat kontu eta istorio gertatu diren hiribilduko kale barrenetan! Hirurogeigarren hamarkadara arte, hiru mi-

la biztanle baino gutxiago zeuden, eta industrializazioaren eraginez hamasei-hamazortzi mila biztanleko herria bilakatu zen. Datu gutxi batzuk agerian jarri ditut, eta zertarako nagoen hau egiten pentsatuko duzue...

Esan dudanez, gure kaleak istorioz eta historiaz beterik daude, baina gure ondare fisikoa ez da oso zabala: Lobianoko Jauregia, Valdespinako Jauregia, Eliza, tren geltokiko eraikuntza... Beno, azken hori jada ez daukagu bistan, bota egin baitute modernizazioaren alde eta ondare fisikoaren kontra. Herrian badiugu mende bat baino gehiago dituzten eraikinak, baina tren geltokia sinbolo bat zen, belaualdi askoren joan-etorrien lekukoa. Ez dute eraikin bat bota, oroitzapenak izan dira biktima,



Ioritz Rasero

eta txarrena, txikiketa horren aurrean kontrako mugimendurik ez dela sortu.

Administrazio publiko desberdinak modernizazioaren aldekoak dira, *modernizazioa* zaharra apurtu eta berria jartzearen aldeko mugimentzat badugu. Donostian, adibidez, azkeneko urteetan sinbolo ziren bi eraikinekin berdina gertatu da. Horieta-ko bat bota egin dute, baina besteak zutunik jarraitzen du, zergatik? Donostiarrak mugitu egin direlako. Ermua ez da mugitu, Facebook-en komentario gutxi batzuk eskabadorak gelto-kiaren atean zeudenean.

Zaindu dezagun ondare publikoa, batez ere esku bateko hartzekin konta ahal dugunean.

“ Gure kaleak istorioz eta historiaz beterik daude, baina gure ondare fisikoa ez da oso zabala ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33




optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. ☎ 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).



Maiatzaren 9an
Zorionak tia Nere familiaren partez zure 80. urtebetetzean!!!



Apirilaren 12an
Zorionak printzesa! Jarraitxu horren alaia eta maitagarria izaten! Muxu eta besarkada erraldoia etxekoan partez Nahia! AMZ.



Apirilaren 18an
Zorionak Luken! Primeran pasa zure 8. urtebetetzean. Patxo haundi bat etxeko guztion partez.



Apirilaren 26an
Zorionak zure 8. urtebetetzean!!! Asko maite zaitugu Oihan!!!



Apirilaren 26an
Zorionak Vane!! Zure urte betetzean muxu asko eta besarkada handi bat Ander, aita ta etxeko denon partez! Muxus zorionak!!



Apirilaren 18an
Zorionak Marina. Zure urtebetetzea heldu da eta zorionak ematea besterik ez dut.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:

drogeten@gmail.com

Azken eguna:
Maiatzaren 12a.

arral
arral97.com

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia


IZASKUN TXURRUKA

Goienkate 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com



TORREKUIA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekuia kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

**MALLABIA
1960**

Mallabiko neskak agertzen dira eskolan ateratako argazkian, maistriakin, Concha Urionabarrenetxeakin. Garai hartan neskak eta mutilak gela ezberdinetan egoten ziren.

Bertan agertzen dira: Charo Ruiz, Maria Jesus Askondo, Begoña Urkidi, Lourdes Astarloa, Mari Carmen Ormaetxea, Lourdes Garitagoitia, Belen Abendibar, Arantxa Mallabiabarrena, Miren Mallabiabarrena, Maria Jesus Garitagoitia, Ciamin Miñon, Aurelia Bilbao, Asun Antxia, Mari Tere Milikua, Inmaculada Abendibar, Mari Tere Arregi, Mari Sol Ruiz, Arrate Txurruka, Begoña Ortuzar, Gema Milikua, Ana Mari Txurruka, Mari Rosa de Celin, Agurtxane Ormaetxea, Maria Jesus



Astarloa, Begoña Olaizola, Maria Jesus Aranburu, Rosita Aranburu, Begoña Derteano, Mari Carmen Aranburu, Conchi Garitagoitia, Arantxa Cepero, Begoña Pagaldai, Conchi Biritxinaga, Julita Elgezua, Maria Angeles Arriaga, Amaia Ortuzar, Mari Carmen Amutxastegi, Mari Carmen Solozabal, Mari Asun Aranburu, Mari Carmen Astarloa eta Begoña Arriaga.

**ERMUA
1897**

Errotabarri etxeko semea zen Francisco Olañeta, eta orain 120 urte ateratako argazkian, bere ama Agapita Unamunorekin agertzen da. Aitxatxoren altzoan, Aurea Olañeta Onandia, Modesta emazteak eta biak izandako alaba zaharrena.

1936ko gerratean, apirilaren 25ean, bonba batek teilatua errebentatu zion Errotabarriri, eta ezta daren ondorioz, Aurearen hurrengo anaia, Roman, hilda atera zuten bertatik, 38 urte zituela. Urteetara, errota zahar bihurtuta, goitik behera bota eta betetzen zuen etxe-koadro ederrean auzoko ume eta gazteentzat jolas-parke bat egin zen.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Dagoeneko hasi dira tren geltoki berriaren obrak martxan, eta herriaren ikur izan den trenbide sareko eraikina irauli dute. Bermeokoarekin batera, kurban dagoen geltoki bakarra izan da Ermukoa urteetan. Geltoki berriarekin, bigarren errail bat gehituko da.

- Badakizu nola geldituko den geltoki berria?
- Askorentzat arriskutsua den kurba kendu beharko litzateke?



Tren geltoki berriaren proiektua ikusi nuen, baina ez dut gogoratzen. Agian Amañan egin dutenaren parekoa izango da, goitik igogailuz errailetara jaisteko. Tunel bitartez etorriko dela uste dut, eta honela ez da orain arte egon den kurba mantenduko. Segurtasunean irabazi egingo da.

Begoña Zenarruzabeitia, 70 urte



Egia esan, ez dakit nondik helduko den trena, baina tunel bat egingo dutela uste dut. Bi errail jartzeak asko arinduko ditu bidaiak. Eibarrera joateko tren gehiago jarri daitezke horrela. Bestalde, ez dut uste kurba mantenduko dutenik, segurtasun oso gutxi ematen dio bezeroari.

Itziar Zenarruzabeitia, 52 urte



Lekeitiokoa naiz eta ez dut ideia askorik bertako tren geltoki berriaren inguruan. Ez dut geltokiaren proiekturik ikusi oraindik. Kurban egoteak arriskutsua bihurtu du urteetan, eta behin aldatuz gero, hori konpondu beharko lukete. Era berean, positiboa da bi errail ezartzea.


Jose Luis Minguez, 64 urte



Askok irabaziko du herriak tren geltoki berriarekin. Tranbia asko ez dira lehenengo Mallabiko geltokian gelditu beharko, eta trafikoa arinduko da. Kurba beti egon izan da, eta kontu handiz ibili da jendea, baina ona litzateke hori ezabatzea segurtasuna handitzeko.

Manuel González, 78 urte

Tasio eta Sabino



- Momentu batean prestatu dutena!

ZINEA

6tik 8ra:
13tik 15era:
20tik 22ra:
22tik 24ra:
29tik 1era:
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:
Hilak 11:
Hilak 18:
Hilak 25:
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7:
Hilak 14:
Hilak 21:
Hilak 28:
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

ANTZERKIA

Hilak 5:
 Kale antzerkia.
 19:00etan.
 Orbe kardenalaren plazan.
Hilak 5:
 "Francoren bilobari gutuna", Artedramaren eskutik. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10€
Hilak 12:
 "Wenses y Lala", Elena Oliveri eta Juamma Rodriguezekin. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10€
Hilak 19:
 "El oxímoron de la abuela", Maite Lorenzo eta Juama Canorekin. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 8€



MUSIKA

Hilak 20:
 Vértigo Rock: Narco, KOP, Rat-Zinger, Kokein, The Guilty Brigade, Fear Crowd, Stai Zitto, The Vartools, Black Redding. 19:00etatik aurrera. Betiondon.

ERAKUSKETAK

Hilaren 1etik 14ra:
 Lobiano Kultur Gunean.
 18:00etatik
 20:00etara.
Hilaren 15etik 18ra:
 Eskulturak: Luis López Sánchezen lanak.
 Lobiano Kultur Gunean.
 18:00etatik
 20:00etara.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 5, 12, 19 eta 26:
 Haurrentzako jolasak: Barixakuetan.
 17:30ean.
 Orbe kardenalaren plazan.

BESTELAKOAK

Hilak 6:
 Kulturen arteko jaialdia: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan.
Hilaren 8tik 14ra:
 Galiziako Letreei buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan eta Galiziako Zentroan.
Hilaren 18tik 21era:
 Euskal Liburu eta Disko Azoka: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan.



Hilak 27:
 Gazte Eguna: hainbat ekitaldi.
 11:00etatik aurrera.
 Orbe kardenalaren plazan.

Patxi López

**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**

**PRO
 arraindegia**

**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Eibarko La Salle Azitain

**Artezko
Batxilergoa**

**Giza eta Gizarte
Zientzietako
Batxilergoa**



**Zientzietako
Batxilergoa**


**ZATOZ
GUREKIN**

Aurrematrikula zabalik maiatzaren 2tik 12ra


Euskadi



ICT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxe
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

www.lasalleeibar.com
emaila: azitain@lasalle.es
Tel: 943121698



euskara praktikoa

30 urtean, 50.000
lagunek
ikasi dute euskara
gure 100
euskaltegetan

Kaltxango AEK euskaltegia

2017ko EKAINA EUSKARA IKASTAROAK

DBH 4 eta batxillerreko ikasleentzat

Ekainaren 5etik 30era
(izena emateko azken eguna, maiatzaren 29a)
4 orduko ikastaroak
Goizez zein arratsaldez

B2 eta C1 (EGA) mailako azterketak prestatzeko ikastaroak
Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)

AZTERKETAK URRIAN

B2 C1 Maila

Matrikula-aldia: Irailaren 15etik 25ra
Entzumenezko eta irakurmenezko probak: Urrian
Idazmeneko probak: Azaroan
Mintzamenezko probak: Azaroan

DIRUZ LAGUNDUAK **Euskaltegi homologatua**

Bizkaia etorbidea 13, behea
943 171 940 · kaltxango@aek.eus

